

**Batxilergoko Sari Bereziak / Premios Extraordinarios de Bachillerato****BALORAZIO-IRIZPIDEAK****BALORAZIO-IRIZPIDE OROKORRAK**

Baloratuko dira erantzun zuzenak, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, testuaren egituraketa, lexikoaren egokitasuna eta zuzentasun linguistikoa.

BALORAZIO-IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK**Euskara, Gaztelania, Aleman hizkuntza, Frantsesa hizkuntza, Ingeles hizkuntza**

Baloratuko da batez ere gaiaren ulermen orokorra, gaitasun analitikoa, diziplinarteko konexio gaitasuna (historikoa, filosofikoa, zientifikoa, eta abar), erabilitako aipameneren egokitasuna, argumentuaren xehetasuna, ideien originaltasuna eta aberastasuna eta idazteko adierazpena (idazketa, azalpen-ordena, eraikuntza sintaktiko zuzena, lexikoaren aberastasuna eta zuzentasun ortografikoa).

Matematika II

- Planteamendu zuzena baloratuko da, bai orokorra, bai alderdi bakoitzarena, halakorik balego.
- Problema eta soluzioa ikusarazteko lagungarriak diren ideiak, grafikoak, aurkezpenak, eskemak eta abar modu positiboan baloratuko dira.
- Prozedurak garatzerako ordena, horien justifikazioa eta konponbideen zehaztasuna baloratuko dira.
- Problemen planteamendua eta ebazpenean originaltasuna baloratuko da.
- Hizkuntza-matematikoaren zuzentasuna kontuan hartuko da.

Latina II

- **Itzulpena:** testuaren ulermena itzulpen literal bat ez egiteko, latinezko morfosintaxiaren ezarpen egokia eta hiztegiaren erabilera zuzena baloratuko dira.
- **Sintaxia eta morfologia:** elementuen identifikazio zuzena eta funtzio sintaktikoa baloratuko dira, baita perpaus-bereizketa eta tipologia ere.
- **Lexikoa:** proposatutako latinismoen esanahiaren eta egungo erabilera ulermena baloratuko da, baita etimologiaren ezaguera ere.

**Gizarte Zientziei Aplikaturiko Matematika II**

- Planteamendu zuzena baloratuko da, bai orokorra, bai alderdi bakoitzarena, halakorik balego.
- Problema eta soluzioa ikusarazteko lagungarriak diren ideiak, grafikoak, aurkezpenak, eskemak eta abar modu positiboan baloratuko dira.
- Prozedurak garatzerako ordena, horien justifikazioa eta konponbideen zehaztasuna baloratuko dira.
- Problemen planteamendua eta ebazpenean originaltasuna baloratuko da.
- Hizkuntza-matematikoaren zuzentasuna kontuan hartuko da.

Artearen oinarriak II

- Artelana une historiko eta sozialaren topagune dela antzematen du.
- Artelanei erreparatuta interpretatzen du arteak izan duen eboluzioa.
- Aztertzen ditu arte-ekoizpenak, bai alderdi estetikitik, bai haien egitekoaren eta erabileraren ikuspegitik.
- Konparatu egiten ditu gizarte eta kultura zenbaitek egindako artelanak eta / edo haien egiteko estiloak eta moduak.
- Arte-ekoizpenen teknikak, prozesuak eta emaitzak aztertzen eta konparatzen ditu.
- Antzematen eta arrazoitzen ditu sormen-lan eta ekoizpen estetikoaren artean dauden harremanak eta eraginak: komikia-arte, artea-argazkigintza, musika-hitza...